

**MAILEGUZKO HITZETAKO X LETRARI BURUZ HARTU
BEHARREKO ERABAKIAZ. X LETRAREN BALIO
ERABAKIORRA ZIENTZI HITZETAN**

*Jesus Mari TXURRUKA
Kepa ALTONAGA
Martxel ENSUNZA
Jose Ramon ETXEBARRIA*

EHU

Txosten honetan Euskaltzaindiak aspaldi samar emaniko gomendio bati buruzko azterketa aurkeztu da, izan ere, horren gaineko behin-betiko erabakia luzatzen ari dela-eta, *laissez faire, laissez passer* jokabidea ari baita nagusitzen eta, ondorioz, *x* letraren bazterketaren kausaz, bide ia itzulezin batean sartzen ari baikara hiztegi gintzan, hartu gabeko erabakiade *facto* alde batera gehiegi lerratuz eta aldi berean zientzi hitz askoren kasuan polisemia arriskugarria indartzen ari delarik.

Txosten honetan defendatzen den ikuspegiaren arabera, behar-beharrezkoa da, maileguzko hitzen kasuan *x* letra bere horretan uztea, argitasun eta zehaztasun zientifikoaren izenean. Hitzen grafiarako proposatzen dugun erabakia hartzearen alde, txostenean azaldutako arrazoiez gain, aipamen berezia merezi du, une konkretuaren aipamenak. Gure ustez, erabaki horri dagokionez, ezin ibil daiteke luzamendutan, euskal hiztegi gintza modernoaren une erabakiorrean bizi baikara. Izan ere, publikoki jakinarazi denez, Euskaltzaindiak aurreikusita baitauka bere hiztegi ofizialaren argitarapenerako muga-data, zeina mendearen bukaerari aurrea hartzeko pentsatua izan den. Zer esanik ez, hiztegi horrek eragin arauemaile eta finkatzaile nabarmena izango du euskara idatzian eta, horregatik, nahitaezkoa izango da *x* letraren inguruko 1984ko gomendioaren inguruan behin-betiko erabakia hartzea.

Gure azalpena zientziaren arloko hitzen adibideetatik abiatuko da, horrelakoetan *x* letra gordetzearen komenientzia azpimarratuz, hitz arruntetarako biderik egokiena arau hori ezartzea dela ondorioztatuz, *x* letra gordetzea alegia, gaur egungo gomendioaren alderantzizko bidea hartuz, zeinean hitz arrunt gutxi batzuren jokabidea hitz zientifikoetarako ere extrapolatu den. Gure ikuspuntuaren arabera, bide hau okerra da zientziarako, eta gomendioaren indarrez jadanik arrunt bihurtu diren hitz tekniko asko *s* letraz erabiltzeko joera behartua dago, bidearen desegokitasuna nabarmen agertuz, gure ustez: *estra, esperimentu, esportazio*... Ez da berria orain egiten dugun eskari hau, lehenago ere 1994ko urrian Leioan Euskaltzaindiak antolaturiko kongresuan eskari bera egin baikenuen; baina erabaki zuzena lehenbailehen hartu behar delakoan, berriro ere aurkeztuko dugu. Kongresu hartan erabilitako argumentazio berbera gogoratuz —ez dugu ordukoa errepikatuko inor ez aspertzearren—, orduan esandakoaren gehigarri modura prestatu dugu oraingo txostena, zientziaren arloan gertatzen diren arazoak modu praktikoa

ezagutaraziz. Aldi berean uste izanik, gainera, erabakirik okerrena erabakirik ez hartzea litzatekeela. Gabiltzan, bada, bizkor, baina arduratsu eta zuzen.

1.-ES-/S- HASTEN DIREN KULTUR HITZAK EUSKARAZ ES- MODUAN MAILEGATU OHI DIRA.

Euskal hitzak *S* + *kontsonante* moduan hasten diren kasuetan *E* letra gehitzearekin (Euskaltzaindia, 1984), etimologia desberdina izatearen ondorioz, ingelesez eta frantsesez desberdin idazten diren hitz batzuk (*to escale/ to scale*, e.b.) desberdintzeko posibilitatea ezabatu zen. Gainera euskara batuaren alfabetotik *Kh*, *Ph*, *Th* eta horrelakoak kendu zirenez, eta *Ca/Ka*, *Co/Ko* eta *Cu/Ku* bikoteak *Ka*, *Ko* eta *Ku* forma bakarretara murriztuta geratu direnez, frantsesez eta ingelesez grafikoki oso desberdinak diren hitz bi forma bakarrera murriztuta gera daitezke. Zenbait kasutan espainieraz ere antzeko zerbait gertatzen da. Adibide paradigmaticoa frantsesezko **eschatologie** / **scatologie** (ingelesez, *eschatology/scatology*) izan daiteke. Bikote horren ordainetan, euskaraz **eskatologia** eta gaztelaniaz *escatología* forma bakarra dago. Frantsesez zein ingelesez irakurtzen ari denak, hitzaren hasiera oso desberdina aurkituko du batean eta bestean, *ESCHA-/SCA-* alegia, gaztelaniaz eta euskaraz galdu diren desberdintasunak hain zuzen ere. Horregatik LAROUSSE hiztegiak (Frantsesa/Gaztelera) hiztegian irakurleari honako azalpena ematen dio:

SCATOLOGIE = Escatología

Observ. Il existe également en espagnol le mot *escatología*, qui **n'a pas la même racine que le précédent** et qui signifie en français *eschatologie*, c'est-à-dire ce qui a trait à la vie d'outre-tombe.

Euskal irakurleari harrigarri xamar gerta dakioke jakitea Axular-ek ikasketak eskatologikoak egin zituela eta gutariko batek (JMTx) duela bost bat urte barearen eskatologia biokimikoari buruzko ikerketa burutu zuela, Josafat-en zelaian barerik ote dagoen argitzeko helbururik ez zuen ikerketa hain zuzen ere. Hortaz, izaki zerutiarrei buruzko ikasketak egindako Axular (**Eschatologie** deritzonari dagozkionak hain zuzen ere) eta bareen gorotzetako karbohidratoak (**Scatologie** izeneko zientziaren barruan) koantifikatu zituen Txurruka, biak dirateke euskal *eskatologoak*. Ekologian modan jartzen ari den "Molecular scatology" zientziaren artikuluak elizgizonen eskuetan erortzeko arrisku handirik ez dagoenez, hain eremu desberdinek euskaraz (eta gaztelaniaz) eduki dezaketen izen berberaz ohartzeak sortuko dion harriduraz utziko dugu irakurlea. Gure ustez, zientzia eta teknikako esaldi berean ager daitezkeen **escalating** eta **scaling** hitzen euskal maileguak desberdindu ahal ez izateak arazo larriagoak sor ditzake. Esate baterako, nola itzul daiteke euskarara esaldi hau?

Escalating of the trend shown by the most apical spires of the shell during the evolution of *T. convoluta* —as can be observed in the fossil record— probably was accompanied by **scaling** of the inner soft tissues and organs of this snail, but as far as this process didn't leave clues clear enough for its resolution by paleontologists...

Frantsesez kontzeptu bien arteko desberdintasun grafikoa (idatzizkoa) ingelesekoa baino argiagoa da, *escale/échelle* bikotea dagoelako, hurrenez hurren. Euskaraz kontzeptu bietarako **eskala** hitz bakarra dugunez, bietarikoren batean, **escalating** edo **scaling** itzultzean, mailegutik ihes egin beharko dugu eta hitz baten ordeaz azalpenen bat eman, ez baita posible kontzeptu biak **eskalamendu** moduan ematea. Kontzeptuen esangurari adituz, **escalating** delakoari **eskalamendu** atxeki eta **scaling** kontzeptua **eskala-aldaketa** moduan ematea da irtenbide bat.

Balio bezate aurreko adibide biek, hitz tekniko eta zientifikoak mailegatzean bide fonetikoa hartu izanak, erraztasun grafiko nabariak eskaini arren (horri esker *sphygmoplethysmograph* deritzon aparatua euskaraz *esfigmopletismografo* hitz

"idazterraza" izatera pasatu da), arazo puntualak ere sortzen dituela frogatzeko. Harturiko bideak itzulerarik ez duenez, onartu eta segi aurrera, beste irtenbiderik ez dago-eta. Arazoa txikia dela uste duen edonork, arazoaren dimentsioaz benetan jabetu nahi badu, frantses edo ingeles hiztegi orokor bat har dezala, eta *S* likidoz, *ES*-rekin eta *EX*-ekin hasten diren hitzak zenbat orrialde betetzen dituzten ikusi. Nola esan daiteke, bada, "*incursión eta excursión hitzen esanahien arteko distantziak erakusten du (ex-) aurrizkia antzutu dela gazteleraz*" (Oñederra, 1994), eta oin-ohar baten bidez gaztelerarentzat esanak ingelesarentzat ere balio duela? Egunotan antzutuko zen, alajaina!, zeren proteina *extrintsekoak* (*intrintseko* direnekin kontrajarriak), erreakzio *exergonikoak* (*endergonikoen* kontrakoak), *exonak* (*intronen* aurkakoak), guruin *exokrinoak* (*endokrinoak* ere badaude), geneen berrantolaketaren *Exzizio/Intsertzio* eredua, *Paramecium*-en ugalketa sexualeko *exkonjuganteak*, eta gura adina adibide aurki baitaitezke, argitaratu berri diren textuetan.

Atal honen amaierako ohar modura, diogun ezen *S* letraz hasten diren hitz tekniko batzuen kasuan, *S* letra hutsaz uztea izaten dela egokiena, hala nola Fisikako *spin* hitz oso erabiliaren kasuan.

2.- *EX*-ekin HASTEN DIREN KULTUR HITZAK EUSKARAZ *ES*- MODUAN MAILEGATU BEHAR OTE DIRA?

2.1.- Euskaltzaindiaren 1984.eko aholkuaren aurretiko egoera

Aurrean aipaturiko arazo mugatu horiek, exponentzialki biderkatu dira Euskaltzaindiak Euskara, **29** (1984) 793. or. aldizkarian maileguzko hitzetan kontsonante aurrean *X* idatzi ordez *S* idaztea aholkatu zuenetik hona. Emandako arrazoi lakonikoa, *estrainio*, *esplikatu*, *testu*, *eskumiku* eta *espresuki* tradizioan horrela agertzen direla esatea izan zen, besterik gabe.

Bost hitz horietaz landa, mailegaturiko zenbat hitz arrunt gehiagotan egin da *X*-etik *S*-rako bihurketa hori? Kontrara, euskal tradizio idatzian, mailegaturiko zenbat hitzetan errespetatu zen jatorrizko *X*-a kontsonante aurrean? Izan ere, Euskaltzaindiaren agerkari ofizialari, *Euskera* aldizkariari alegia, emaniko gainbegirada arin batean, Joseph Lezamiz-ek 1699.ean argitaraturiko liburuaren izenburu moduan "*Articulu Fedecoen explicacinoa*" (Arana, 1979), Leizarraga-ren textu batean "*myrrhazco eta aloesezco quasi ehun liberatato mixtione bat...*" (Altuna, 1983), XVIII. mendeko egile ezezagunaren "*Catichima edo fediarene eta guiristino eguien explicacione laburra*" (Mendiguren, 1981), 1713.ean J. de Arin-ek argitaraturiko "*Doctrina Christianaren Explicacioa Villa Franca Guipuzcoaco onetan euskaraz itz eguiten dan moduan*" (Mendiguren, 1981) irakur baitaitezke. Ala hauek ez ote dira euskal tradizio idatziko textuak? Zein hitz-multzo da oparagoa, mailegatzean *X*-etik *S*-ra pasatu direnena, ala jatorrizko *X*-a errespetatu dutenena? Erantzuna bilatzekotan, euskal textuen datu-base informatikoa kontsulta daiteke. Existitzen al da datu-base informatiko hori? Edozeinek kontsulta al dezake?

Bestalde, Euskaltzaindiak aipaturiko aholkua kaleratu zuenean, euskara batuaz idazten zebiltzan pertsona ikasi eta alfabetatuen buruetan, bizirik eta indarrean al zegoen kontsonante aurretiko *X*-a *S* bihurtzeko joera hori, ala, artean, 1984.ean, zenbait hitzetan fosilizaturiko antzinako aldaketa (fonetikoa?) zen? Esate baterako, Euskaltzaindiak emaniko bost hitzetako zerrenda horretako bi (*esplikatu* eta *testu* hain zuzen ere) ez al ziren euskara batuko orduko hiztegietan *X*-z idatzita agertzen? Bestalde, nola agertzen ziren hiztegiotan *exzentriko*, *expantsio*, *expoliatu*, *exportatu*, *extrapolatu*, eta gura adina luza daitekeen zerrendako hitzak? Nola agertzen ziren *exponente*, *explizitu*, *exzitate*, *exklusio*, *expletibo*, *extraposizio*, etab. UZEIko hiztegi berezietan? Nola mailegatzen ziren hitzak zientzia eta teknikari buruzko ikerketalanak euskaraz argitaratzen zituen aldizkari bakarrean, Elhuyar aldizkarian alegia? Hezkuntza-maila desberdinetan erabiltzen ziren textuetan agertzen ziren maileguzko hitzetan, egiten al zen kontsonante aurreko *X* \emptyset *S* bihurketa hori? Nola idazten zuten euskaltzaleek EUSKARAN? Azterketa xume batek

erakusten digu ezen J. A. Arana Martija-k (1979), E. Etxezarreta-k (1981), X. Mendiguren-ek (1981) eta B. Oihartzabal-ek (1984) *textu* (eta Oihartzabal-ek *kontextua* ere bai), M. Azkarate-k (1980) *textuinguru, explikatu* eta *expresioa* (hiru horiek gutxienez) eta L. Villasante-k (1984) *exklusiboki* idatzi zutela. Bestalde, J. M. Satrustegi (1978) moderatzaile izandako elkarrizketa-sail batean, *textugintza* agertzen da Mari Karmen Garmendia-k esandakoaren transkripzioan.

Mailegu oso zahar batzuetan izan ezik, ez al zegoen euskal idazleen artean erabateko batasunik mailegaturiko hitzetan jatorrizko hizkuntzako *X*-a errespetatzeko? Ez al zen etorri erreduktionismo maximalistaren adibidea izan daitekeen aholku bat batasun hura apurtzera?

2.2.- Euskaltzaindiaren 1984.eko aholkuaren osteko egoera

Baten batek Euskaltzaindiak emandako aholkuaren alde, adibidez, *extra-* aurrizkia *estra-*ra pasatzeak sortzen duen arazo bakarra, bisuala dela esan dezake, besterik gabe ohitzearen arazoa dela gehituz; gainerako hizkuntzetan *virus* idazten dena euskaraz *b*-rekin idaztea ikusteak, *birus* alegia, gaur egun harridurarik sortzen ez digun moduan, hemendik denbora batera *extrapolazio* hitza *estrapolazio* moduan ikustea seguraski ez zaigula arraro egingo...

Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarrean gai berberoni buruzko txosten bat aurkeztu genuen (Etxebarria *et al.*, 1994). Zientzi Fakultateko eta Medikuntzako Saitetan lanean ziharduten 69 irakaslek txostenean esaten zenarekiko adostasuna beren sinaduren bidez adierazi zuten, Euskaltzaindiaren Plaza Barriko egoitzan txostenarekin batera aurkeztuak izan zirenak hain zuzen ere. *X*-faktorea deitu izan zena (Ikus Euskararako Errektoreordetzak biltzarren kariaz 1994-10-04ean ateratako Campus aldizkariaren 3. zenbaki berezia), zalantzarik gabe, XIII. Biltzar hartako gai "izarretariko" bat izan zen, hizkuntzaren zerbait garrantzitsua jokuan zegoenaren seinale edo. Guk dakiguna errealitatearekin bat baldin badator, harrezkero Euskaltzaindian ez da arazoa berriz tratatua izan. 1984.ean kaleraturiko aholku polemiko horren alde, besterik gabe, aholkuan oinarrituriko **ezarpenaren arrazoia** erabili izan da (ezin uka aspaldi honetan Euskaltzaindia botere-gune bilakatu denik, edota, nahi izanez gero euskaltzainek zenbait botere-gune kontrolatzen dituztela). *Laissez faire, laissez passer* soilarekin, aski da ezer ez esatea Euskaltzaindiaren aholkuak indarrean iraun dezan. Hortaz, zertarako sartu gai korapilotsuetan, jakinik, gainera, aholkua aldatzeko arrazoiak sendoak direna eta agian norberak emandako aholkua okerra zela eta zuzendu beharko dela?

Bestalde, eta guri dagokigunez, ba al dago arrazoirik hiru urte beranduago gai berberari buruz ekinean segitzeko? Gure ustez bai, eta inoiz baino arrazoi gehiago eta sendoagoak gainera. Euskarari, eta, batez ere, euskara zientifiko eta teknikoari, egiten ari zaion azpijan ixil eta ia oharkabeak, lehenago edo beranduago, faktura pasatuko digulako kezkatuta gaude. Hemen emandako arrazoiak aintzakotzat hartzen ez badira eta eman beharreko lema-kolpea lehenbailehen eman ezean, etorkizunean, bat baino gehiago hileta jotzen hasten denean, norbaitek galdetuko du ea zergatik iraganean ez ote zitzairen jaramonik egin zegoen arriskuari buruz lehen abisuak ematen zituzten 1994.eko eta 1997.eko bi kexu-txostenei.

Etorkizuneko iragana gaurko eguna denez, hel diezaiozun behingoz txosten honen muinari, hitz mailegatuetan jatorrizko *X*-a mantentzearen aldeko **arrazoien indarra** aurkezteari hain zuzen ere.

3.- ZENBAIT ARRAZOI EUSKALTZAINDIAK BERE 1984.EKO AHOLKUA ALDA DEZAN

3.1.- *X*-a *S* bihurtzearekin hitz mailegatuen polisemia handitu daiteke

Jatorrizko *X* euskarara mailegatzean *S* bihurtzearen arazoa gustu estetikoaren gainetik dagoen zerbait dela —hau da soilik bisuala ez dela— konprobatzen hasteko, eman dezagun adibide bat, halako kasuetan adibideak, argibideak barik, frogabideak izan baitaitezke. Zerbait moldatuta badago ere, honako testua aurkitu genuen sariketa batera aurkezturiko lan batean:

"**Estasiak** agertzen duen beste eragin modu bat muga-egoeretan heriotza ekar dezakeen hipertermia da. Heriotza hauen arrazoietakoa bat "bero zastada" deritzon fenomeno da, zeinean gorputzaren bapateko tenperatura-igoerari bizpahiru ordutako **estasi** termikoa darraion. [Gainera, droga honek sortzen dituen eragin entaktogeno/estimulatuak direla-eta, pertsonak prozesu honetaz ez omen dira konturatzen. Emaizta hauek oso garrantzitsuak dira kontutan hartzen badugu pastila hauek zein tenperatura-baldintzetan (diskoteka itxiak, jende mordoaren dantzaldiak sortutako tenperatura altuak, ...) izaten diren kontsumituak]."

Estasi bi horiek kontzeptu bakarrari dagozkio, ala ez? Testua gaztelaniara itzultzekotan Hiztegia 3000 eta Elhuyar Hiztegia kontsultatuko bagenu (euskara batua/erdara eta erdara/euskara batua ematen duten azken hiztegi bietan "erdara" gaztelania delako, besterik gabe), lehenaren arabera "*estasia*": **trillo** edo **éxtasis** bezala itzuliko genuke; bigarrenari jaramon eginez, ordea, **éxtasis** edo (**Med.**) **estasis** moduan. Ez dirudi goiko paragrafoan esaten denak "trillo" batekin zerikusia duenik. Aldiz, Medikuntzari dagokion testu baten itxura duenez, Elhuyar Hiztegiko bigarren adiera hartuko genuke. Bigarrena soilik? Ezer ulertuko al genuke? Hortaz, batean **éxtasis** (*extase*, frantsesez) eta bestean **estasis** (*stase*, fr.) biak hartu beharko genituzke? Zein zeinetan ordea? Gaian espezialista ez den euskaldun "ikasi" batek, jakingo al luke arazoa ziurtasunez ebazten, kortxeteen arteko zatia kenduko bagenu batez ere?

Edozelan ere, zorionekoak gu aipaturiko hiztegi bietan *estasi* hitza agertzen delako. Goazen bada hurrengo itzulpena.

"Primeteetan **esterozeptoreak** ikusmen eta entzumenarekin daude erlazionatuta nagusiki. Propriozeptoreak eta **esterozeptoreak**, aldiz, nerbio-bukaera askotan gauzatzen dira eta gorputz osoan zehar daude sakabanatuta."

Ezer ulertzen al da? Bigarren esaldiko "aldiz" juntagailuak argi erakusten du *esterozeptore* biak zerbaitetan kontzeptu kontrajarriak direla, baina zer da, bada, *esterozeptore* bat? Testu horren gaztelaniazko bertsioa irakurriko bagenu, lehena *esteroceptor* eta bigarrena *exteroceptor* eran agertuko litzaizkiguke, letra bakar batez desberdindurik hain zuzen ere; alegia, *S*-ren ordez *X* dago bigarren hitzean. Frantsesez eta ingelesez gauzak askoz argiago leudeke, izan ere, frantsesez *Stéréocepteur* eta *Extérocepteur* aurkituko genituzke eta ingelesezko ordainak, hurrenez hurren, *Stereoceptor* eta *Exteroceptor*. Hortaz, frantsesez eta ingelesez *EXT-/ST-* hasiera nahikoa desberdinak dituzten hitzak, gaztelaniaz soilik letra bakarraren desberdintasunera mugatuta geratu dira, *EXT-/EST-*, eta Euskaltzaindiaren aholkuaren ostean, euskaraz erabat berdindurik geratu dira, *EST-/EST-*. Nola itzuliko luke euskaldun "ikasi" batek erdarara *gaixo batek arteria koronarioko estima urratuta dauka*? Esaldi horretan tutik ez ulertzetik gertu-gertu egongo da: Denok diogu geure arteria koronarioari *estima*, alajaina!. Eta **extima** jarriko balu? Hiztegian bila dezakeen hitz bat ez ulertzea mugatuko litzateke arazoa. Koska handia dago, esaldi osoa ez ulertzearen etsipenetik hiztegiaren topa daitekeen hitz/kontzeptu (arteriako *zerbait* dauka urratuta) bakarra ez ulertzea.

Ez da, baina, hau muturreko kasua. Kultur erro bi hitz berean konbinatzen direnean, aurrekoak baino are desberdinagoak diren hitzak, euskaraz (ia) berdinduta gera daitezke. Esate baterako, frantsesez eta ingelesez *ex-*: kanpo + *kystis*: bixikula erroen baturatik **excyst-** kultur erroa sortzen da, **schist-**: arrakalatua esan nahi duen erroarekin azaleko antzekotasun grafikoa (**excyst-/schist-**) duena hain zuzen ere: esate baterako, **excystation/schistocyte** bikotean dagoena. Hitz-bikote hori gaztelaniara pasatzean, hurrenez hurren, oso antzeko grafia duten **exquist-/esquist-** izatera ailegatu dira, **exquistamiento /esquistocito** izatera, grafia ia-ia berdina duten hitz bi izatera hain zuzen ere. Lehen, euskaraz, **exkist-/eskist-** idazten genuen, baina Euskaltzaindiaren aholkuaren arabera biak

eskist- moduan eman behar omen ditugu, alegia, **eskistamendu/eskistozito** moduan; bi horietariko zeinek du zerikusirik kistetik irtetearekin?. Gu bai argiak gu, kontextutik zein den zein jakitera iristen garenok! Izango al dira horren argiak itzulpen automatikoa egiten/egingo duten software-ak?

3.2.- X-a S bihurtzarekin euskarara mailegatutako hitzaren erdaretarako itzulpena zailago egin daiteke eta euskaldunak desalfabetatzen lagundu

Izeia zuhaitz **eskurrentea** dela, landare batek infloreszentzia **espikatua** duela, matxinsalto arren **estridulazioa** emeak erakartzeko dela, Dolly ardia errapeko **esplante** bateko zelula baten nukleoa klonatuz jaio zela, **eszifistoma** izeneko hasikinetik marmokak sortzen direla, onddoen **esterigmak** ikusteko mikroskopioa behar dela, Jabier Agirre medikuak kolon **espastikoari** buruz idatzitako artikulua oso interesgarria iruditu zaigula, angioplastian XeCl **eszimeroa** dela erabiliena, **esfalerita**-meatze handia dagoela Andaluzian, Mikrobiologia Sailean **potesbirus** batekin lanean dabiltzala...

Aurreko esaldiak euskaraz irakurri ondoren eta Euskaltzaindiaren aholkuaren arabera idatzita daudela jakinik, eta, noski, hiztegi berezituren baten laguntza barik, zein "pertsona ikasi" ausartuko litzateke beltzez nabariarazitako hitz mailegatu horiek gaztelaniara itzultzeraz? Are okerrago dena, gorago aipaturiko euskal hiztegi orokor bietan (Hiztegia 3000 eta Elhuyar Hiztegian) hitz horiek ez dira agertzen. Bere bizi guztian euskaraz ikasi duen pertsona bati, pasatuko ote zaio burutik arestian aipaturiko hitz horiek gaztelaniaz nola izango ote diren, alegia X-rekin ala S-rekin, bere buruari galdetzea? *escurrente* ala *excurrente*, *espigada* ala *expigada*, *estridulación* ala *extridulación*., *esplante* ala *explante*, *escifistoma* ala *excifistoma*, *esterigma* ala *exterigma*, *espástico* ala *expástico* *escímero* ala *excímero*, *esfalerita* ala *exfalerita*, *potesvirus* ala *potexvirus*? Ala, besterik gabe, denak S letrarekin emango ditu? Zenbat akats ortografiko edukiko lituzke horrela egingo balu? Selektibitateko hautaprobetan hitz horiek agertuko balira, zenbat hiztegi kontsultatu beharko lituzke Euskararako Kabinete Teknikoko itzultzaileak azterketa hori gaztelaniara akatsik gabe itzultzeko eta, hortaz, barregarri ez geratzeko? Pentsa gainera ingelesezko edo frantsesezko hiztegi berezituren bat kontsultatzekotan *escurrent*, *excurrent* eta *surrent*, *espicate* (*espycate*), *expicate* (*expycate*) eta *spicate* (*spycate*) —eta berdin gainerako hitzekin— begiratu beharko dituela itzulpena aurkitu arte. Eta edonoren ordenadoretan dauden testu-tratamendurako programen spelling eta thesaurus-ak erabiliz gero, zein gertuko hitz edo sinonimo agertuko zaizkigu? Esate baterako, *extridulación* hitzaren sinonimoa gaztelaniazko thesaurus-ean bilatuz gero, ezer antzekorik aurkituko ez dugunez, hitz teknikoegia dela eta horregatik ez dagoela pentsatuko dugu. Arrazoia ez da hori baina. Gaztelaniaz *estridulación* izatea da benetako arrazoia. *Es-/Ex-* aurrizkiez hasitako hitz bat thesaurus-ean agertzen ez den bakoitzean, horrelako zalantzetan ibili beharko ote dugu? Eta ingelesezko thesaurus-a soilik badaukagu? Hitz ez topatzearen arrazoia agian hitzaren hasieran S likidoa dagoela pentsatu beharko dugu.

Eta lehen erabateko ziurtasuna geneukan hitz arruntetan, orain sortzen zaizkigun zalantzak? Horrenbeste aldiz ikusi eta gero *espediente akademikoa*, *kurba esponenziala*... nola da erdaraz *espediente* ala *expediente* académico?, *curva esponencial* ala *exponencial*? Eta iparraldekoen zalantzak? *espédient*, *spédient* edo *expédient* académique? *Courbe esponentielle*, *sponentielle* edo *exponentielle*? Zalantzak ez daude ez académico/académique-n ez eta curva/courbe-n, beste bietan baino. Zer ote daukate berezia hitz horiek gure duda-mudak pizteko? Geure buruak maila horretaraino desalfabetatuta ikustea ere!

Eta zergatik lan eta zalantza horiek guztiak? Bada, Euskaltzaindiaren aholkuari jarraituz behin euskal maileguan kontsonantearen aurrean S ipiniz gero, ez dagoelako, eta okerreana dena, ezin da egon, inolako araurik jakiteko euskaratik gaztelaniara itzultzean S hori dagoen moduan utzi behar den ala X-ra pasatu behar den. Zer esanik ere ez, hitzok frantsesera itzuli nahi badituzte, Iparraldeko euskaldunek are okerrago dute arazoa, **eskatologia** eta **eskalamendu** hitzekin adierazi bezala. Ez da horrelakorik gertatzen goian aipaturiko bi hitzen beste leterekin. **Excurrente** izanik euskal mailegua gaztelaniara

pasatzeko *k* hori *c-z* ordeztu eta eginda dago (ingelesera eta frantsesera itzultzean azken *-e* letra hori ere kendu beharko genuke); euskaraz **potexbirus** bada, edozeinek daki gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez hitza *potexvirus* izango dela. Berez, ez da zailagoa gaztelaniatik euskarara pasatzea, euskaratik gaztelaniara itzultzea baino. Batetik besterako itzulpenaren zailtasunean, simetria mantentzen da. Kontsonante aurreko *X-a* *S-ra* pasatu ondoren ere bai? Argi dago ezetz.

3.3.- *X*-ren ostean datorren kontsonantea *S* denean, arazoa konponezina dela dirudi

Itzultzailearen eta irakurlearen zailtasun larrienak jatorrizko hitzeko *X*-ren ostean *S* bat datorrenean agertzen dira. Horrelakoen mordo dago, baina zerrenda ez luzatzearen, hona hemen bizpahiru adibide: Koleraren toxinen ondorioz hesteko epitelioan zeharko likidoen **exsortzioa** gertatzen dela, sutean zaurituriko suhiltzaileei Gurutzetako ospitalean ke toxikoak **exsuflatu** dizkietela (exsuflore batekin), uteroko kiste handia **exsomatizatze** egin dioten ebaketan **exsikosi** arazo larria sortu dela eta 2 litroko **exsanguinotransfusioa** egin behar izan diotela...

Euskaltzaindiaren aholkuaren arabera, nola idatzi beharko lirateke hitz horiek? *Esortzioa*, *esuflatu*, eta abar, *S* hizkia bikoiztu, ala, *X*-aren osteko kontsonantea kendu eta bokal biren arteko *X-a* mantendu, *exortzioa*, *exuflatu* eta abar emanaz? Hiru kasuetan *traduttore*, *traditore* aforismoa erabiltzeko aski arrazoi dagoela iruditzen zaigu. Bestalde, euskaraz legokeen testu hori euskaratik erdararen batera itzuli beharko balitz, itzultzaile gizajo/koitaduak *Esortion/Essortion/Exortion* eta *Esufle/Essufle/Exufle* bilatzera sartuko balitz, ezer aurkituko ote luke?, ala "hiztegi honetan hitz horiek ez datoz" esanez itxiko luke hiztegia?

3.4.- Hitza mailegatzean jatorrizko *X S* bihurtzeak euskal hitz zahar eta ezagun baten grafia bera hartzera eraman dezake

Sariketa batera aurkezturiko lan batean honako hau irakurri genuen:

"Pozoiaren osagaiez gain, bestelako faktore batzuk kontuan hartu beharrekoak dira. Erreakzio orokorra jasaten duten pertsona alergikoen adina ez dirudi arrisku-faktore garrantzitsua denik, bai, ordea, sexua, izan ere %60tan gizonezkoetan ematen baita, agian *intsektuei gehiago esposatzen direlako*."

Aditzaren komunztadura aparte utzita, "gizonezkoak intsektuekin emakumezkoak baino gehiago *esposatzen* direla" jakiteak irakurle bat baino gehiago harrিতuta utziko zuen; hori bai, testua ulergarria izateko **esposatu** hitzaren *S-a* *X* bihurtu behar duela ohartu aurretik, jakina.

Baten batek argudia dezake **to expose** (ing) / **exposer** (fra) / **exponer** (gaz) hitzak euskaraz emateko **exposatu** hitza ez dela beharrezkoa, balegokeela hitz "jatorren" bat hori esateko. Zein, ordea?

Exponer = azal(du), adieraz(i), ager(tu), erakuts(i), para(tu) (Hiztegia 3000)

Exponer = erakutsi, azaldu, adierazi, eduki, jarri, arriskatu (Elhuyar Hiztegia)

Zoritxarrez, baina, hiztegiok emandako *Exponer*-en euskal baliokide gehienek ez digute balio itzulpen honetan. Denok jakin badakigu tranpak egiten eta *intsektuei esposatu* beharrean, "intsektuen aurrean *paratu* " (Hiztegia 3000) edo "intsektuen aurrean *jarri* " (Elhuyar Hiztegia) esanda estuasunetik irteteko moduko itzulpen "libreak" eman ditzakegula. Eta itzulpena euskaratik erdararen batera egiterakoan, nola itzuli beharko genituzke *paratu* eta *jarri* horiek?, batez ere bigarrenaren polisemia kontutan hartuta? ("porque los hombres *se disponen / se sitúan / se colocan / se exponen / se presentan / se tienden / se preparan / se ponen / se establecen / se fijan / se interponen / se sientan / se acostumburan / se habituan / se resignan / se conforman / se aficionan* más delante de los insectos"?). Zilegi al da 1000 orrialdetik gorako textuliburua jatorrizko bertsiotik itzultzean, "itzulpen libreak" aritzea?

3.5.-X S bihurtzeak euskararen beste hizkuntza kultuekiko homologazioa oztopa dezake

Euskararen normalizazioa badugu helburu, hizkuntzaren balizko normalizazioa hizkuntzaren homologazioaren eskutik etorriko da ezinbestean, arlo zientifiko eta teknikoetan bederen. Eta homologazio-prozesuek badituzte beren arauak (gogoratu bestela, hain ospetsuak egiten ari diren ISO arauak), itzulpen "tranpatietan" ibiltzea galerazten dutenak hain zuzen ere. Azter ditzagun testu beraren lau itzulpenak.

A high proportion of children *exposed* over a long period to the mutagenic action of cesium 137 released during the catastrophic accident of the Chernobyl nuclear plant has developed thyroid cancer.

Une élevée proportion des enfants *exposés* longtemps à l'action mutagenique du césium 137 libéré pendant l'accident catastrophique de la centrale nucléaire de Chernobyl a développé cancer de thyroïde.

Una elevada proporción de los niños que estuvieron *expuestos* durante un largo periodo a la acción mutagénica del cesio 137 liberado durante el catastrófico accidente de la central nuclear de Chernobil ha desarrollado cáncer de tiroides.

Txernobil-go zentral nuklearreko istripu katastrofikoan askaturiko zesio-137aren eragin mutagenikora luzaroan *exposaturiko* umeen proportzio handi batek tiroideko minbizia garatu du.

Aurreko testua lau hizkuntza homologatutan emanda dagoela ezin uka. Baieztapen hori bermatzeko, egin dezagun aproba bat. Ipin ditzagun zortzi itzultzaile trebe errenkan ingelesetik frantsesera, frantsesetik gaztelaniara, gaztelaniatik euskarara eta hemendik berriz ingelesera aurreko testu hori itzultzen, horrela bi aldiz. Egon ziur jatorrizko ingeleseko bertsioa eta azken ingeleseko itzulpena ñabardura ñimiñoren batean baino ez direla bereiziko. Lehen euskal itzultzaileak *esposaturiko* jarri izan balu?, edo, berau saihesteko, "eragin mutagenikoaren menpe luzaroan paratutako / jarritako umeen..." Nork paratu/jarri ditu luzaroan umeak zesio-137aren eragin mutagenikoaren menpe?, galdetuko du norbaitek. Hobe, hortaz, "paratutako/jarritako umeen" ordez, "egondako umeen". Baina hiztegieta "egon" ez da *To expose/exposer/exponer*-en euskal ordain gisa agertzen... Agur gure hizkuntzaren homologazioa. *Traduttore, traditore*.

Baten batek muturreko adibideak ematen dihardugula eta gauzak bere senetik ateratzen ari garela pentsa lezake. Pertsona "ikasiak" beti daukala esangura kontextutik ateratzeko aukera eta, beraz, euskarara itzuli ostean grafia berbera eduki arren, euskal testua deskodetzeko arazo larriegirik ez leukakeela esan lezake. Ikus dezagun hori horrela denentz. Demagun pertsona batek, itzultzen ari den liburuaren kapitulu baten izenburu gisa, ondoko hau aurkitzen duela:

Comparative morphometry of *M. robustus* and *M. fontinalis*. Shape changes are due to **excaling** not to **scaling**.

Ezagutu nahi dugu Euskaltzaindiaren aholkua jarraituz balizko izenburu hori itzultzera ausartuko dena. Hobeto esanda, jatorrizko hizkuntzan horren desberdinak diren *excaling* eta *scaling* hitzen euskal itzulpena irakurri ostean, bigarren esaldiaz ulertu duena azaltzen ausartuko dena. Gogoratu, gainera, arazoa are larriagoa dela oraindik, izan ere, hasieran esan bezala, *escalping* eta *scaling* desberdinak baitira. Gaitzerdi *excaling* horren X-a mantenduz *exkalamendu* itzuliko bagenu, horrela bakarrik izango baikinakeke gai, bigarren esaldiaren lehen erdialdean gertatzen den prozesua ulertzeko. Bestela, zuzen eta zehazki ulertzeko gai izango ez bagina, non legoke gure hizkuntzaren homologazioa?

3.6.- Kultur erroak tartean direnean, X S bihurtzeak hitzen etimologia ilun dezake

Euskaltzaindiaren XIII. biltzarrean bertan A. Sagarna-k (1994) adierazi zuenez, erabilitako lexikoaren aberastasuna ikaragarria izatea da hizkuntza teknikoaren

ezaugarrietariko bat. Emandako datuen arabera, Shakespeare-k bere lan guztietan erabilitako hitz-altxorra 23.000 hitz ingurukoa da. Ingeniaritza elektrikoaren eremuan, aldiz, 4 milioi kontzeptutik gora omen daude. Ba al dago munduan baten bat hitz horiek guztiok ezagutzen dituenik? Ezezkoan gaude. Zein irtenbide geratzen zaio "inoiz *uomo universale* izan zitekeenari eta orain "gizon ikasi" hutsetan gelditu denari"? (Mitzelena, 1978).

Kontzeptu berriak izendatzeko orduan, sarri askotan hitzok latinetik eta grekotik harturiko kultur erroen bidez eraikitzen direnez, gure esperientzia pertsonal aski luzeak frogatu digu ezen, hiztegi on bat eskura ez badu, edo bertan aurkitu ezin daitekeen hitz edo kontzeptu ezezagun bat topatzen badu, hitzaren "balizko disekzio etimologiko" bezala definituko genukeena burutzea dela "pertsona ikasi" batek egin dezakeen lehen gauza. Pertsona horrek alde aurretik ikasi dituen kultur erroen altxorra buruz errepasatu, eta ahal duen neurrian hitzaren esparri semantikoa mugatzen saiatu. Ondoren, "balizko esangura" hori hitzari zegokion textuinguruan txertatu, ea horrela esaldia ulertzen den. Zortetik badago, ederto!; eta bestela, lerroz lerro gaia garatuz doan heinean (zenbaitetan argituz, beste batzuetan korapilatuz), hurrengo textuinguruan berriz txertatu, ea oraingoan zortetik ote dagoen. Hau da artikulua sinatzen duten ingeniari biek HIESari buruzko ikerketen berri ematen duen Scientific American bezalako aldizkari dibulgazio-artikulua ulertzen hasteko jarraitu beharko luketen bidezidorra eta, era berean, artikulua honen beste bi sinatzaileek, biologoak biak, abiadura handiko trenen lebitazioan supereroankortasunaren teknologiak duen aplikazioa azaltzen duen La Recherche-ko bi orritako artikuluxka ulertzeko saiakeran hartu beharko luketena.

3.7.- X S bihurtzeak kultur erroekin eginiko hitzen deskodifikazio semantikoa zailago egin dezake. Inkesta baten emaitzak.

Kultur hitzen esangura deskodetzeko lehen urrats modura grafiak duen garrantzia ukaezina dela frogatzeko, inkesta anonimo bat egitea otu zitzaigun. Horretarako, zortzi kultur hitz hartu genituen eta bakoitzari bi etimologia esleitu genizkion: bata benetakoa eta bestea oso antzeko kultur erroez eginikoa, baina faltsua. Erantzunetan inolako desbideraketa edo zehartasunik ekiditeko, zortzi hitz horietariko lautan benetako etimologia lehenengoa izan zen eta beste lauetan bigarrena. Erantzun egokia zein izan zitekeen adierazteko moduko zantzuak kentzeko, zortzi hitzak alfabetikoki desordenatuta eman ziren.

Zientzi Fakultateko lehen ikasmilako Biologia, Geologia eta Kimika Sekzioetako ikasle bolondresei luzatu zitzaizen inkesta, horretarako arratsaldeko orduerdiko atsedendaldia erabiliz. Estatistikak dioskunez, erantzun-kopurua nahikoa handia bada, emandako hitzaren etimologia zorian aukeratzen bada, ikasleen erdiak etimologia zuzena aukeratuko du eta beste erdiak okerra. Erantzunen ehunekobestea zorizko ehuneko berrogeita hamar horretatik nabariki desbideratzen bada, zorian erantzun barik, inkestatuek hautespen-irizpide argia dutela adierazten du horrek.

Inkestaren prozedura honako hau izan zen: Kultur hitz bakoitza eta zegozkion etimologia biak banan-banan izan ziren projektatuak. Inkestatzaileak etimologia biak irakurri ondoren, 30 segundotako epea eman zitzaizen etimologia bien artean aukera zezaten. Denbora hori iragan ondoren, transparentzia erretroprojetoretik kendua izaten zen eta hurrengo hitza eta zegozkion etimologia biak erakusten ziren. Aldez aurretik finkaturiko helburua erdiesteko, ikasle "naïf"-ak beharrezkoak zirenez, hau da ikasleek hitz hori beren bizitzan lehen aldiz topatu behar zuten, eta, hortaz, hitzaren esangura erabat arrotza egin behar zitzaenez, kultur hitz bakoitzari erantzuna eman baino lehen, ikasleak hitza ezagutzen zuen ala ez ipini behar zuen. Erantzuna baiezkota zeneko kasuetan emaniko erantzuna, ez zen analisi estatistikorako kontutan hartua izan. Dena den, soilik bi ikasleek ezagutu zuten hitz bat (berbera gainera). Horretaz aparte, eman beharreko erantzuna zenbaki bakarrera murriztuta geratzen zen: 1 lehen etimologia ontzat ematen bazen, eta 2 kontrako kasuan. Erantzun-tipoa honelakoxea zen: *EZ*. 2. (Ez du hitza ezagutzen. Benetako etimologia bigarrena da)

Inkesta egin aurretik, Euskaltzaindiaren aholkuaren berri eman zitzaien, ikasleen portzentaje handi batek ezagutzen ez zuena hain zuzen ere. Halaber, kultur hitz batzuren erakustaldi bi emango zitzaie esan zitzaien: Lehenengo erakustaldian kultur hitzok Euskaltzaindiak aholkatu bezala zeudela euskaraz idatzita, eta bigarrean, X-ak eta S-ak zegozkien tokietan errespetatuz, eta euskarara gaztelaniatik (hizkuntza honetan hitzak mailegatzean bide fonetiko jarraitzen delako, euskaraz bezala) mailegatuta zeudela gehituz. Erakustaldi batean emandako erantzunak orriaren alde batean idatzi behar ziren eta hurrengo erakustaldikoak orriaren beste aldean. Gainera, lehen erakustaldian zer erantzun zuten jakin ez zezaten, orriari buelta ez emateko, eta, ahal zen neurrian, aurkezturiko hitz guztiei erantzuna emateko erregutu zitzaien.

Eginiko inkestaren textua hauxe izan zen:

ESKISTAMENDUA	(<i>ex-</i> : kanpo; <i>kystis</i> : bixikula). Kiste edo estalpen babestailetik bizkarroiak irteten direneko bizi-zikloaren fasea. (<i>skhistós</i> : arrakalatu). Garapen enbrionarioan gertatzen den akatsa, zeinaren ondorioz entzefaloo erdibituta agertzen den.
ESFEROSPERMIA	(<i>spháira</i> : esfera; <i>spérma</i> : hazia). Espermatzoide biribil eta isats gabekoak agertzen direnean. (<i>ex-</i> : kanpo; <i>pherein</i> : eraman; <i>spérma</i> : hazia). Intsektuek lore arretatik polena hartze n dutenean aurrera daramaten prozesua.
ESTEROGNOSIA	(<i>stereós</i> : solidoa, espazioa; <i>gnosis</i> : ezagupena). Duten itxura edo kontsistentzia direla eta, objektuen izaera ezagutzeko ahalmena. (<i>externus</i> : kanpo; <i>gnosis</i> : ezagupena). Pertsonak bere ingurua ezagutzeko eta ulertzeko duen ahalmena. Ahalmen horren gabezia da autismoaren akats nabarientarikoak.
ESKISTOZITOA	(<i>ex-</i> : kanpo; <i>kystis</i> : bixikula; <i>kytos</i> : ontzi hutsa, zelula). Garapeneko fase goiztiarretan erabilitako babes-egitura edo kiste utzi ondoren, odolatan agertzen direneko protozoo bizkarroien zelulak. (<i>skhistós</i> : arrakalatu; <i>kytos</i> : ontzi hutsa, zelula). Anemia hemolitikoan beha daitezkeen eritrozito-zatiak.
ESTEROZEPTOREA	(<i>stereós</i> : solidoa, espazioa; <i>ceptor</i> , <i>receptor</i> -etik eratorria: hartzailea). Animaliak duen paraera espazialari buruz informazioa ematen duen nerbio-bukaera; higiduretan, oreka mantentzearen erantzuleak dira. (<i>externus</i> : kanpo; <i>ceptor</i> , <i>receptor</i> -etik eratorria: hartzailea). Kanpo-ingurune hurbiletik datozen kinadek kilikaturiko nerbio-bukaera.
ESFENOTIKOA	(<i>ex-</i> : kanpo; <i>phainéin</i> : erakutsi + iko). Bere burua besteei erakusteko joera duen pertsonak jasaten duen sindromea. Exhibizionista hitzaren baliokide kultu edo medikoa. (<i>sphéen</i> : ziria; <i>óus</i> : belarria). Esfenoidearen zatia izango den hezur fetala.
ESPODOGENOA	(<i>spodós</i> : errautsak; <i>gennán</i> : sortu, ekoitzi). Organoren batek ekoizitako hondakin-materialei dagokiena. (<i>ex-</i> : kanpo; <i>poús</i> , <i>podós</i> : oina; <i>gennán</i> : sortu, ekoitzi). Fetoaren behe-gorputzadarrak soinetik ateratzen has daitezten, enbrioiak jariaturiko hormona.

ESTROFOSOMA (*ex-*: kanpo; *trophée*: elikadura; *sóoma*: gorputza). Nerbio-sistema zentralaren akatsarengatik pertsona gorputz-kanpoko tresnez elikatu behar denean.

(*strophós*: xingola okertua; *sóoma*: gorputza). Batez ere oiloen kasuan ematen den zelosoma, zeinean gorputzadarrak bizkar aldera zuzenduta dauden, beraien mutur distalak buruan apoiatzen direlarik.

Zortzi hitzok bigarren erakustaldian honelako grafiaz zeuden idatzita: EXKISTAMENDUA, ESFEROSPERMIA, ESTEROGNOSIA, ESKISTOZITOA, EXTEROZEPTOREA, ESFENOTIKOA, ESPODOGENOA eta ESTROFOSOMA.

Lehen erakustaldian, Euskaltzaindiaren aholkuaren arabera idatzitako maileguak erakusten zirenekoan alegia, baturiko erantzunak 857 izan ziren; berorietariko 392tan, hau da kasuen %45.74tan, etimologia ondo asmatuta zegoen eta 465etan, hots kasuen %54.26tan, gaizki. Datuek erakusten duten banaketa dela eta, argi dago ikasleak etimologiak zorian aukeratzen ibili zirela. Guk asmatutako etimologiak ikasleei ziria sartzeko bezain egokiak suertatu ziren, erantzun okerrak zuzenak baino ugariagoak izan baitziren.

Bigarren erakustaldian, jatorrizko gaztelaniaz zeuden X-ak eta S-ak mantendu zirenekoan, jasotako erantzunak 854 izan ziren eta emaitzak honako hauek: 765 erantzunetan, kasuen %89.58tan alegia, etimologia ondo asmatuta zegoen eta, aldiz, 89 erantzunetan, hau da kasuen %10.42tan, gaizki. Argi dago, hortaz, oraingo honetan ikasleak irizpide sendoa erabiltzen ari zirela etimologia zuzena hautatzerakoan. Ikusitakoak ikusita, X-ak eta S-ak duten balio ikoniko erabakigarria uka ezinezkoa dela iruditzen zaigu.

Bada, baina, gauzak are argiago uzten dituen beste emaitza bat. Zortzi hitzen zerrendan, Euskaltzaindiaren aholkua jarraituz, soilik bitan eman da X-tik S-rako transformazioa: *Exkistamendua* \emptyset *Eskistamendua* eta *Exterozeptorea* \emptyset *Esterozeptorea*, alegia. Beraz, murriz dezagun geure analisia bi kasu horietara soilik.

Lehen erakustaldian, *Eskistamendua* eta *Esterozeptorea* erakutsi zitzaizkionean, hala ere, batutako 211 erantzunetatik 102tan, kasuen %48.34tan, etimologia ondo asmatuta zegoen eta 109tan, ordea, kasuen %51.66tan, txarto. Estatistikak aurrikusitako %50etik analisi orokorrean baino gertuago geratu gara oraingo honetan. Beraz, ikasleak zorian ari ziren erantzuten.

Bigarren erakustaldian, *Exkistamendua* eta *Exterozeptorea* aurkeztu zitzaizkionean alegia, beste 211 erantzun jaso ziren. Oraingo honetan 196tan, kasuen %92.89tan, etimologia zuzena zen eta gainerako 15 erantzunetan, kasuen %7.11tan, txarto. Emaitza hauen bidez, analisi orokorretik ondorioztatutakoa, berretsi ezezik, indartu eta irmotuta geratu dela uste dugu, zeren, azken kasu honetan, kasu guztiak hartu direnean baino are argiago geratu baita, ikasleek etimologiaren hautaketa-irizpide sendoa zeukatela eta logikaz erabili zutela.

Emaitza hotzak hor daude, interpretatzeko errazak direnak, ondorio argietara eramaten gaituztenak. Gure ustez, arazoaren konponbidea erraza da, onartuz, hala ere, gaur atzo baino zailago dela, baina bihar baino askoz ere errazagoa. *Tempus fugit* dio aforismo klasikoak. Azken hiru urteotan euskal hiztegien eta entziklopedien loraldia ezagutu dugu. Ea hemen esandakoak kontutan hartzen diren eta lehenbailehen Euskaltzaindiak 1984an emandako aholkua *taxuz eta tentuz* berraztertzen duen eta zuzendu beharrekoak zuzentzen dituen. Era horretan, hiztegi eta entziklopedien hurrengo argitaraldietan euskararen homologazioan urrats bat aurrera, eta ez atzera, eman ahal izango da. Premia-premiazko arazoa da berau, egunotan Euskaltzaindiak BBV Fundazioarekin Hiztegi Batua laster batean argitaratzeko akordioa sinatu du-eta. Hemen ikusitakoak ikusi ondoren, 1984.eko aholkua aldatzen bada, borondate on pixka bat aski da, orain arte Hiztegi Batuan aurreraturiko lana aise artezteko, izan ere gaur egungo baliabide informatikoez zuzentzeko.

-lana ikaragarri errazten baitute. Edozelan ere, jakitun gaude lana ez dela ahuntzaren gauerdiko eztularen parekoa izango, zeren *esportatu* berriz ere *exportatu* izatera pasatzea gauza bat da, eta oso bestelakoa, adibidez, azken euskal hiztegi bietan agertzen den *estasi* hitza ea aldatu behar ote den jakitea; eta gainera, aldatzekotan *estasi* bezala agertzen denak dituen bi adierak ea lehena *extasi*-ari dagokion eta bigarrena *estasi*-ari, ala alderantziz. Dena den, hobe da jakitun-talde batek behin egitea eremu semantikoaren esleipen hori, eta ez, oraingo moduan, bakoitza bere kautan, erabateko ziurtasunik gabe ibiltzea.

3.8.- Maileguetan X S bihurtzeak ahozko diskurtsoan beti behe-mailako erregistroan ihardutera behartzen du

Azkenerako utzi dugu arazo fonetikoa, ia-ia argudio erabakitzaile gisa aurkeztu zena (Oñederra, 1994). Egia da "*lazy speaker*" moduan dihardugunean, —Oñederrak *hizkera arduragabe* deitzen dion horretan— lagun artean edo famili giroko berbetaldian esate baterako, kontsonante aurreko X-ak sarritan S bihurtzen ditugula. Gure ustez hori ez da "arduragabeki" hitz egiten dugulako, baizik eta era fonetikoki eroso eta ekonomikoan, ezpainak, mihi eta barailak okertuz eta higituz jokatzeko dugulako, ulertuak izateko bezainbeste, ez gehiago. Adibide topiko modura, demagun Euskal Telebistan "Datorren urtean Euskal Herriko *exportazioek* berebiziko hazkundera ezagutuko (*sic*) omen dute" esan dutela. Hori entzun arren, etxean erne ez zegoen amak "Ze esan dau? itauntzen badu, "Datorren urtin Euskal Herriko **esportasiñoik** kantitadi ixongo ei dabela" (Ondarru), "Datorren urtean Euskal Herriko **esportasiñuak** demasa eingo ei dabela gora" (Eibar), jaso dezake erantzun legez, gutxi gora-behera; ama hori Alegikoa bada eta semeari "Ze esan dek" galdetzen badio "Datorren urtean Euskal Herriko **esportazioak** izugarri haziko omen direla" entzun dezake erantzun gisa, eta, azkenik, "Heldu den urtean Eskual Herriko **esportazioneak** biziki emendaturen bide direla" izan daiteke Lapurdin, "Zer erran du?" galdatzen duen amari emanen zaion arrapostua. Ez da, hortaz, hitz mailegatuetan kontsonante aurreko X S bihurtzen dela. Hitz hori hizkuntzaren behe-mailako erregistro batean kontextualizatzen denean (kurtsibaz nabariarazitako hitzak) —hizkuntza jatorrean mintzo garenean esango luke norbaitek— mailegatzen den hitza goitik behera aldatzen da, eta zenbat eta hitz hori erabiliagoa izan eta mailegua zaharragoa izan, hainbat eta aldaketa sakonagoak jasoko ditu. Edozein euskaldunek daki "bere amaren bularretik jasotako euskaran" nola ebaki behar den mailegu gordin eta basatiena; e.b., *Spinthariscopes*=*Espintariskopixua* (erosi dute laborategirako), *Stapediotenotomy*=*Estapediotenotomixa* (egin diote aitajaunari) esango genuke Eibar aldean. Eredu jasoan nola idatzi da arazoa, denok berdin egiteko.

Oso gazteak direnak izan ezik, euskaldun guztiak erdararen batean ere eskolatuta gaudenez, denok daukagu erdal hizkuntza mintzatua baino eredu jasoago bat, hitz bera denok berdin idaztera garamatzana: *exportation* (frantsesez eta ingelesez) edo *exportación* idaztera derrigortzen gaituena hain zuzen ere. Belarriak erne edukiz gero gaztelaniaz *experimento*, *exportación*, *explorador*, eta abar entzungo dizkiegu sarritan ikasle erdaldunei. Halaber, bokalen arteko X S-ra pasatzen dute inolako lotsarik gabe: *esageración*, *osígeno*... Kasu batean izan ezik: *Sexo* hitzean X argi eta garbi mantentzen dute, agian ez dezagun pentsa *Sexo*-a (*Sexe*) *Seso*-arekin (*Cervelle*) konfunditzen dutela. Dena den, ikasle berak lasai asko esan dezake *sesualidad*. Esandakotik argi dago ikasle erdaldunak hiztun "arduragabeak" (*lazy speaker*-ak) direla. Idaztean edo ikasketen amaierako Tesina jende aurrean aurkeztean, ordea, *experimento*, *oxígeno*, etab. idatzi eta esango dute, lagun artean galtzen ohi den X horren soinua argi eta garbi ahoskatuz, ikasleak eredu jasoan diharduela nabarmentzea nahi izango balu moduan.

Euskaldun "ikasía" denak eta euskaraz alfabetatuta dagoenak, berez, inork horretara bultzatu barik, etxeko euskaran erabilitako "*esportasiñoik*, *esportasiñuak*, *esportazioak*, *esportazioneak*" gaitzat hartuz eredu jasoan hitz egitea edo idaztea nahi izango balu, ez al luke "**exportazioak**" idatziko?. 1984.eko aholku hura eman baino lehenago, eredu jasoan zihardutenean, pertsona "ikasiek" ez al zuten horrela idazten? Baten batek "*exportazioak*" idazte horrek erdararekiko morrontza adierazten duela esango du. Zein erdararekiko morrontza, baina? Gaztelania, frantsesa, ingelesa, alemana...? Ala, inkontzienteki, grafia

hori errespetatuz euskaldun hori eredu jasoa duten hizkuntzetako partaide sentitzen ote da? Ez al du sentitzen bere euskara "jasoa", maila jasoa duten gainerako hizkuntzekin homologatuta?

Nola ahoskatu beharko luke Industri Sailburuak *exportazioak* hitza legebiltzarraren aurrean, bere Sailari buruzko txosten ekonomikoa irakurtzen dabilenean? X. Kintanak (1984) ezin edertoago definituriko "gure plazagizon idiotok" zeritzenei legokiekeen behe-mailako erregistroko mintzairan aritu beharko ote luke? Ausartuko al litzateke mikrofonotik *las exportaciones* esaten? Nola ebaki beharko luke hitz hori irrati/telebistako esatari batek?

X. Kintanak gai honi buruzko lagun arteko elkarrizketa batean aspaldian maixukiro adierazi zigunez, eredu idatzi jasoa edukitzeak ez du adierazi nahi hitz mailegatua beti halabeharrez eredu horretan ebaki behar dugunik, "Trebiñoko konterria Burgos-ek Araba-n duen **exklabea**" dela esaten dugunean, erregistro jasoan X-arekin ahoskatuko dugu, eta baliteke lagun arteko giroan *esklabea* ebakitzea. Aukera bikoitza dugu, non gauden arabera erregistro bat ala bestea hautatuko dugu, idazkerak ez gaitu konprometitzen, ez gaude ahoskera bakarrera lotuta. Aitzitik, Euskaltzaindiaren aholkuari jarraituz, behe-mailako eredu baina ez zaigu geratzen, nahitaez *esportazioak*, *esklabea*... ebaki beharko ditugarik.

X hizkiak ba omen du euskaraz soinu bat: maixu, ogixa, adixkide, ... eta horrelakoak esaten ditugunean egiten duguna hain zuzen ere, ingeleseko *Sh*-ren parekoa edo dena. Azter ditzagun ondoko esaldi biak:

"harreman **sexualak** izan ostean **goxoki** egiten dut lo"

"**exportatzaile** alemanekin ditugun harreman komertzialak **adixkidetasunezkoak** dira"

Nola ebakitzen dugu *sexualak* eta *exportatzaile* hitzetako X-a? Ez al dugu esaten **Seksualak** eta **eksportatzaile**? Zein soinu esleitzen diogu *goxoki* eta *adixkidetasunezkoak* berbetako X-ari? Ez al ditugu hitzok **goshoki** eta **adishkidetasunezkoak** bezala ahoskatzen?

Euskaltzaindiak onartutakoaren arabera, bokalen artean X-a erabil dezakegu eta *KS* (*sexualak*) eta *SH* (*goxoki*) moduan ebaki; aldiz, kontsonante aurrean X-ak soilik *SH* (*adixkidetasunezkoak*) soinua hartzea omen du zilegi, <hersketa-zistukari-hersketa> katea debekatuta omen dagoelako euskararen (Oñederra, 1994), ala zehatzago esan beharko genuke "debekatuta zegoelako"? Aspaldian ikasi genuen euskarara hitzak mailegatzeko zirenean bi kontsonanteen artean bokala sartzen zela (*librum* Ø *liburu*, *fricare* Ø *ferekatu*) edo kontsonante bietariko bat kentzen zela (*florem* Ø *lore*), eta, halaber, *r* letraz hasten ziren hitzetan bokal bat ipintzen zela hasieran (arropa, arratoi, ...). Lehengo bi legeak aspaldian fosilizatu ziren eta azkenak indarrean dirauen arren salbuespenak ditu, *Radar*-etik *Rutenio*-ra *Robotika*-tik pasatuz (Euskaltzaindia, 1984). Gaur egun, ba al dago euskaldunen bat munduan kontsonante aurrean *KS*- soinu hori (*exportatzaile*) ahoska ez dezakeenik?. *Frakak*, *Premina*, *Trena* eta horrelakoak erabiltzen dituenak, ez al da erromatarren sasoian *librum* ebaki ez zezakeena bezain euskaldun jatorra? Ez al da egia aspaldiko mendeetan euskaldunok ezintasun fonetiko batzuk gainditu ditugula eta lehengo fonema-katea "debekatuak" gaur egun zilegi direla eta lasai asko erabiltzen ikasi dugula?

Esan gabe doa, ez gaude inondik inora euskararen arau fonetiko jatorrak errespetatzearen aurka (ez noa Ø enoa, ez genekien Ø ezkenekien, ez doaz Ø eztoaz, ez zaitut Ø etzaitut, etab.), baina balizko arau fonetiko jator batzuen eraginez grafia aldatzen bada, eta horren ondorioz txosten honetan erakusten ari garen problematikari atearik gabeko zabaltzen bazaizkio, hitz mailegatuen egokitze fonetikoaren aldeko ekinak euskarari kalte gehiago eta handiagoak ekarriko dizkio onurak baino, izan ere, ezin baitaiteke konpara, esate baterako, *ex-* aurrizki emankorraren grafia *es-* era pasatzearekin ematen den prozesu obskurantista buru + muina Ø burmuina ematean gertatzen denarekin Ez al du, gainera, Oñederrak berak (1984) onartzen ez, hitz mailegatu horiek "*eremu eta erabilera*

ikasikoak direla oro har eta honek berezkotasuna kentzen diola ahoskerari" ? Kintanak aipatu bezala, idaztean X-a errespetatzeak hitzaren ebakera konprometitzen ez badu, segun-eta hizlariak mailegua nola ebaki nahi duen —era "ikasian" ala, oster, "berezko ahoskerarekin"—, maileguko X-a KS edo S moduan ebakiko du.

3.9.- Ultrazuzenketen arriskua geroz eta handiagoa da

Inortxok ere ez dezala horretan zalantza izpirik izan: munduan pirri ugari bizi arren, gehiengoa *lazy* xamarrak gara. Hortaz, *lazy speaker* dena *lazy writer* ere bada, eta gehiago edo gutxiago denok daukagu bietatik zerbait. Dena den, ez genuke esango aldizkari eta egunkarietan artikuluxkak argitaratzen dituztenak idazle "arduragabeak" direnik, baina erraztasunerako joerak konturatu gabe eramaten du idazlea gero eta joera sinplifikatzaileagoak hartzera. Beste hizkuntzetan X direnak euskarara S moduan mailegatzen badira (esate baterako, gaztelaniako *éxtasis* \emptyset *estasi*, *explorador* \emptyset *esploradore...*), kaleko euskaldun arruntak inkontzientean darabilen arau xinplea esaldi honetan laburbil daiteke: *erdal hitzetako X-ak euskarara mailegatzean S bihurtzen dira*, izan ere, mailegaturiko hitzen bokalen arteko X-ak —Euskaltzaindiaren aholkuari jarraituz mantendu beharrekoak hain zuzen ere— ohartu gabe irakurriko baititu: taxi, oxigeno... , eta soilik kontsonanteen aurrean S bihurturiko X-ek sortuko diote arreta, pertsona hori gehiegizko sinplifikazioaren atariraino eramanez. Are okerrago dena, arazo honetan jantzita ez dagoen fede oneko euskaldun arruntak atera dezakeen ondorio modukoa honako hau izan daiteke: *hitz mailegatuak* (hau da hitz teknikoak, ikasiak, euskara arruntean ez dauden hitzak) *gaztelaniaz behe-erregistroan hitz egitean ahoskatzen diren moduan idazten dira euskaraz*. Esaldi horren azpian dagoen gaztelaniarekiko morrontza zitala aipatzekoa da eta, halaber, euskaldun horrek euskarari dion begiruneak, beharbada, behera egingo duela, pixka bat bederen. Eta euskara pitin bat dakiten fede txarreko erdaldunei, politikariei bereziki, *espediente*, *esportazio*, eta abar barra-barra euskaraz idatzita ikusteak ematen dizkien argudioak euskara gutxiesteko? Azken batez, mailegaturiko hitz horiek, —gainbegirada arin batez errazki aurki daitezkeenak, bestalde— goi-mailako euskaraz idatzitako dokumentuetan erdaldun ez-ikasi edo sasi-alfabetatuek idatziko lituzketen moduan beha baitaitezke. Zesar-en emaztea garbia izateaz gain, horren itxura ere eduki behar du.

Beraz, euskaraz idazten dabilen edozein idazleri, *lazy*-uneren batean, ultrazuzenketak —behar ez den tokian eginiko gehiegizko "zuzenketek" ematen zaie izen hori— egiteko joera ager dakioke. Zer esanik ere ez, Euskaltzaindiaren aholkua zenbat eta denbora luzeagoan indarrean egon, ultrazuzenketen arriskua hainbat eta handiagoa izango da.

Aipaturiko ultrazuzenketen multzoan sar ditzakegu, kasurako, jadanik zenbait aldizkaritan agerturiko zenbait adibide: *sintasi*, *erreflesio*, *esistentzia*, *osijeno*, *esistitu*,... Gure ustez, ultrazuzenketa horiek orain arteko gomendioaren erabilera okerragatik eta lasaiegiagatik sortzen dira, horrek idazle asko bokal arteko X ere S bihurtzera eramaten dituelarik. Zer esanik ez, araua X gordetzearen aldekoa balitz, ultrazuzenketen arazo hau guztiz gairiditurik geratuko litzateke, betiko. Oster, gaur eguneko gomendioarekin arrisku hori geroz eta handiagoa da.

4.- PROPOSAMEN MODURA

Esandakoaren ondorio modura, lehenago 1994ko kongresuan eginiko eskari berbera egingo dugu, proposamen modura aurkezten duguna. Maileguzko hitzei dagokienez, eta bereziki hitz tekniko eta zientifikoei dagokienez, honako hau da Euskaltzaindiari arau modura hartzeko egiten diogun proposamena:

x letra duten maileguak aldatu gabe idatziko dira, letra horri dagokionez.

Arau orokor honek zenbait salbuespen izan ditzake, aspaldiko tradizioetik datozen hitz arrunten kasuan, baina arlo zientifikoan etengabe ageri diren hitz berriei dagokienez, biderik egokiena bere horretan onartzea dela uste dugu, salbuespenik gabe. Antzeko zerbait egin zuen Real Academia de la Lengua Española deritzonak *obscuridad* hitzeko *b* letra eta septiembre hitzeko *p*-a kendu zituenean, baina bere horretan mantenduz *obstáculo*, *obstinado*, *observar*, *obstetricia*... eta, halaber, *optar*, *aptitud*, *septo*, *septicemia*...

Mitxelena zenak hitz mailegatuei buruz 1979.ean idatzirikoa artikuluan honako hau zioen, gai honen gainean dugun pentsaera oso ondo laburbiltzen duena hain zuzen ere:

"Kultur hitzak hitz sail berezia osatzen dute mendebaldeko hizkuntzetan, eta sail berezi hori itxura berezi batek, hizkuntza idatzian batez ere, nabarmentzen du. Hitz herrikoiagoak ez bezalakoak dira, beraz, bai mamiz eta bai azalez. Ezin daitezke, gainera, herrikoi izan herri baten edo bestean, herri bateko edo besteko ez direlako, guztion ondare komun izaki" .

Mitxelena zenak honela amaitu zuen bere 1983.eko hitz mailegatuei buruzko artikulua: "Badakit auzi honetan lehen gertatu eta eginaren indarra arrazoibide nagusi gisa sartu nahiko dela. Lehen egina ez da, ordea, ongi eta zuzen egina, nahi eta ez".

Gure txosten honen bukaerarako zaila izango zen iruzkin hoberik topatzea. Ondo esanak onartuko direlakoan.

BIBLIOGRAFIA

- Altuna, P. 1983. *Leizarragaren zenbait izen sintagma*. Euskera, 28: 463-470
- Arana Martija, J. A. 1979. *Euskara dakarren XVII. mendeko liburu bat Mexicon*. Euskera, 24: 759-765
- Azkarate, M. 1981. *-n / -z erlazio hizkiak denborazko aditz lagunetan Axular eta Etxeberri Sarakoarengan*. Euskera, 25: 401-416
- Etxebarria, J. R., Altonaga, K., Ensunza, M. & Txurruka, J. M. 1994. *Zergatik gorde X letra maileguzko hitzetan*. Euskera, 39: 717-721
- Etxezarreta, E. 1981. *Euskal elizbarruti arteko "itun berria". Itzulpen-xehetasunak historiaren argira*. Euskera, 26: 199-217
- Euskaltzaindia. 1984. *Euskaltzaindiaren agiriak. IV. X*. Euskera, 29: 793
- Kintana, X. 1984. *Gure plazagizon idiotok*. 1984.eko urtarrilaren 24tik 27ra Egin-en argitaraturiko lau artikulua.
- Mendiguren, X. 1981. *Itzulpenaren mundua eta euskal itzulzaileen oinarrizko prestakuntzarako eskola*. Euskera, 26: 933-1003
- Mitxelena, K. 1979. *Euskal hitzen jatorri eta itxura desberdinaz*. Euskera, 24: 773-785
- Mitxelena, K. 1983. *Hitz mailebatuez*. Euskera, 28: 103-105
- Oihartzabal, B. 1984. *Ba- baiezkoa aurrezkia*. Euskera, 29: 351-371
- Oñederra, M. L. 1994. *Ortografiazko arazoak: Esploradore ala exploradore*. Euskera, 39: 711-716
- Sagarna, A. 1994. *Hiztegi teknikoak*. Euskera, 39: 1271-1278
- Satrustegi, J.M. 1978. *Elkarrizketa*. Euskera, 24: 819-825
- Villasante, L. 1983. *Mailebuzko hitzei buruzko jardunaldietako kronikatxoa*. Euskera, 28: 527

Villasante, L. 1984. *Ustaritzeko adierazpenean agintzen dena betetzeaz*. Euskera, 29: 263-267

LABURPENA / RESUMEN / RÉSUMÉ / ABSTRACT

Maileguzko hitzetako x letrari buruz hartu beharreko erabakiaz. X letraren balio erabakiorra zientzi hitzetan

Txosten honetan Euskaltzaindiaren gomendio bati buruzko azterketa aurkeztu da, izan ere, horren gaineko erabakia luzatzen ari dela-eta «*laissez faire, laissez passer*» jokabidea ari baita nagusitzen, eta ondorioz x letraren bazterketaren kausaz, bide itzulezin batean sartzen ari baikara hiztegi gintzan, zientzi hitz askoren kasuan polisemia arriskugarria indartzen ari delarik.

Txosten honetan defendatzen den ikuspegiaren arabera, behar-beharrezkoa da, maileguzko hitzen kasuan x letra bere horretan uztea, argitasun eta zehaztasun zientifikoaren izenean. Hitzen grafiarako proposatzen dugun erabaki hau hartzearen alde, txostenean azaltzen diren arrazoiak, honako puntu hauetan laburbil daitezke:

- x letraren balio definitorioa gordetzeko hainbat hitzen kasuan. Hala nola, *exkalatu* (interkalatu hitzaren antonimoa), *eskalatu* (areagotu, mailaz igotea), *(e)skalatu* (neurketako eskala aldatzea) hirukotearen kasuan.

- Ultrazuzenketen arriskua ekiditeko, esate baterako, jadanik aldizkarietako artikuluetan agerturiko zenbait adibidek ageri dutena saihesteko: *sintasi, erreflesio, esistentzia...*

- H letraren aurreko x letra s bihurtzean sortzen diren arazoak. Adibideak: *eshalatu, eshumatu, eshorto...*

- Maileguzkoak izanik euskaraz ikasitako hitzak beste hizkuntzetara pasatzean arau definitiorik ezean sor daitezkeen akatsak gainditzeko. Adibidez, *eskalatu* edo *estasi* hitzen kasua aipatuko dugu. Arazo hau are larriagoa izan daiteke, unibertsitateira iritsi aurretik euskara hutsez ikasi duten ikasleen kasuan.

- Aurreko puntuarekin loturik, unibertsitateko ikasleekin eginiko inkesta baten emaitzak aurkeztuko dira, zeinean argi ikus daitezkeen x letrari buruz orain arte emandako gomendioak dakartzan kalte edo deskontzertuak.

Arrazoi hauek direla-eta, gure proposamena maileguzko hitzetan x letra gomendatzearen aldekoa da.

Sobre la decisión a tomar acerca de la letra x de los préstamos. El valor decisivo de la letra x en el lenguaje científico

En este informe se analiza la recomendación de Euskaltzaindia sobre la letra x, habida cuenta que la decisión al respecto se está demorando y se está imponiendo en la práctica la postura del “*laissez faire, laissez passer*”, a consecuencia de lo cual, estamos

entrando en un camino sin retorno en el campo lexicográfico, ya que en muchos casos de términos científicos está cobrando cada vez más fuerza una peligrosa polisemia.

Según el punto de vista defendido en este informe, es absolutamente necesario respetar la letra x en los casos de préstamo lingüístico, en aras de la transparencia y la exactitud científica. Las razones favorables a nuestra propuesta para la grafía de las palabras que aparecen en el informe se pueden resumir en los siguientes puntos:

- El valor definitorio de la letra x en el caso de muchos términos, como por ejemplo en el caso de este trío: *exkalatu* (intercalar el antónimo de la palabra), *eskalatu* (potenciar, subir de nivel), *(e) skalatu* (cambiar la escala de medida).

- Para evitar el peligro de la ultracorrección, como es el caso de los ejemplos tomados de artículos de revistas: *sintasi*, *erreflesio*, *esistentzia*...

- Por los problemas que surgen al convertir en s la x que precede a la h. Ejemplos: *eshalatu*, *eshumatu*, *eshorto*...

- Para evitar las faltas ortográficas que pueden surgir al escribir en castellano por no existir norma definitoria sobre aquellas que siendo préstamos se han aprendido en euskera. Como ejemplos citaremos los casos de *eskalatu* o *estasi*. Este problema puede ser más grave, en el caso de los alumnos que antes de acceder a la universidad han cursado sus estudios íntegramente en euskera.

- En relación con el punto anterior, se presentarán los resultados de una encuesta efectuada entre los estudiantes universitarios, en la que se evidencian los prejuicios y desconciertos que han acarreado los consejos dados hasta ahora sobre el uso de la x.

Por todo lo anterior, nuestra propuesta es mantener la letra x en los términos prestados.

Sur la décision à prendre sur la lettre x en formes empruntées. La valeur décisive de la lettre x dans le langage scientifique

Dans ce rapport nous analysons la recommandation faite par Euskaltzandia sur la lettre x, compte tenu du fait que la décision à ce sujet est en train de prendre du retard et que l'attitude du "*laisser faire, laisser passer*" est en train de se mettre en pratique, nous entrons par conséquent sur un chemin sans retour dans le domaine lexicographique, puisque dans de nombreux cas de termes scientifiques une polysémie dangereuse prend de plus en plus de force.

Selon le point de vue défendu dans ce rapport, il est absolument nécessaire de respecter la lettre x dans les cas d'emprunts linguistiques, au nom de la transparence et de l'exactitude scientifique. Les raisons favorables à notre proposition pour la graphie des mots qui apparaissent dans le rapport, peuvent être résumées dans les points suivants:

- La valeur définitoire de la lettre x dans le cas de nombreux termes, comme par exemple dans le cas de ce trio: *exkalatu* (intercaler l'antonyme du mot), *eskalatu* (donner de la puissance à, monter de niveau), *(e)skalatu* (changer l'échelle de mesure).

- Pour éviter le danger de l'ultra-correction, comme c'est le cas des exemples pris dans des articles de magazines: *sintasi*, *erreflesio*, *esistentzia*...

- Pour les problèmes qui surgissent lorsque l'on convertit en s le x qui précède le h. Exemples: *eshalatu*, *eshumatu*, *eshorto*...

- Pour éviter les fautes d'orthographe pouvant surgir lorsque l'on écrit en espagnol car il n'existe pas de norme définitive sur celles qui bien qu'étant des emprunts, ont été apprises en euskera. Comme exemples nous citerons les cas d'*eskalatu* ou d'*estasi*. Ce problème peut être encore plus grave, dans le cas des élèves qui, avant d'entrer à l'université, ont suivi toutes leurs études intégralement en euskera.

- En relation avec le point précédent, les résultats d'une enquête réalisée auprès des étudiants universitaires, et à travers laquelle sont mis en évidence les préjugés et les confusions entraînés par les conseils donnés jusqu'à maintenant sur l'usage de la lettre x, seront présentés.

Pour tout ce qui a été exposé ci-dessus, notre proposition est de maintenir la lettre x dans les termes empruntés.

About the decision of the x in loanwords. The decisive value of the letter "x" in scientific language

This report analyses the recommendations of Euskaltzaindia concerning the letter x, in view of the fact that a decision on this matter is taking a long time to arrive and in practice a *laissez faire, laissez passer* attitude is becoming prevalent. As a result of this we are heading down a road from which there is no return in the field of lexicography, because in many scientific terms a dangerous polysemy is gaining in strength.

From the viewpoint defended in this report it is absolutely necessary to respect the letter x in loanwords, for the sake of clarity and scientific accuracy. The reasons supporting our proposals for the way in which the words discussed in the report should be written can be summed up in the following points:

- The defining value of the letter x in the case of many terms, e.g. *exkalatu* (to insert the antonym of a word), *eskalatu* (to strengthen, to increase in level), *(e)skalatu* (to change the scale of measurement).

- To avoid problems of overcorrection, as in examples taken from magazine articles: *sintasi, erreflesio, esistentzia*, etc.

- As a result of problems arising when x is changed to s before h, e.g. *eshalatu, eshumatu, eshorto*, etc.

- To avoid spelling mistakes in Spanish, since there is no defining rule for loanwords learnt in Basque. Examples of this could be *eskalatu* and *estasi*. This problem could be most serious in students who before reaching university study exclusively in Basque.

- Linked to the previous point, the results of a survey of university students will be presented, showing the damage and uncertainties arising from the advice given to date on the use of the x.

We therefore propose that the letter x be maintained in loanwords.